



## ARANTZako UDALA

IFZ: P 3102200 G

Herriko Plaza, 7  
31790 ARANTZA (Nafarroa)  
☎ 948 634 005  
☎ 948 928 919  
arantza.udala@arantza.eus  
www.arantza.eus

### 2016KO EKAINAREN 17KO BILERAREN AKTA

**Organoa:** Udalbatza.  
**Batzarra:** Ohiko bilera.  
**Deialdia:** Lehenengoa.  
**Eguna:** 2016.06.17.  
**Ordua:** Arratsaldeko 19:00etan.  
**Tokia:** Herriko Etxeko areto nagusia.

#### **Bertaratuak:**

Alkatea: Juan Miguel Almandoz Mitxelena jn.

Zinegotziak:

Mentxu Peña Lizarazu and.  
Ander Almandoz Indakoetxea jn.  
Igor Ugalde Salazar jn.  
Jose Fco. Javier Mitxelena Ordoki jn.  
Juan M. Gonzalez Burguete jn.  
Iñigo Sarrias Zoco jn.

#### **Bertaratu ez direnak:**

Inor ere ez.

#### **Idazkaria:**

M. Jose Larraioz Ariztegi and.

#### **Aztergaiak:**

- 1.-Azkeneko aktaren onespena.
- 2.-Leoncio Oscoz Echeverria jaunak aurkeztutako Arau Subsidiarioen egiturazko aldaketa eskaera.
- 3.-Arantzako Arau Subsidiarioen aldaketa egituratzailea: hasierako onespena.
- 4.-Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentua: eskolan obrak egiteko obra baimen eskaera.
- 5.- 2016ko ekainaren 26ko hauteskundeetarako mahaikideen hautaketa
- 6.-Alkatearen ebazpenak.
- 7.- Eskaerak eta galderak.

#### **1.-AZKENEKO AKTAREN ONESPENA.**

2016ko maiatzaren 30ean egindako bileraren akta ikusi ondoren, aho batez, ONARTU DUTE.

## **2.-LEONCIO OSCOZ ECHEVERRIA JAUNAK AURKEZTUTAKO ARAU SUBSIDIARIOEN EGITURAZKO ALDAKETA ESKAERA.**

Arantzako Udalak, 2015eko abenduaren 11n egindako bileran, erabaki zuen Leoncio Oscoz Echeverria jaunak aurkeztutako eskaera hasiera batean onestea, Arantzako Arau Subsidiarioen egiturazko aldaketa, bere lur zatia den 5. poligonoko 747. lur zatia A lurzoru urbanizagarri ez sektorizatutik ateratzeko eta lur ez urbanizagarria bezala uzteko. Halaber, espedientea hilabete batez jendaurrean paratzea ere erabaki zen.

Iragarkia 2016ko urtarrilaren 12ko 6. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen eta Foru Komunitatean argitaraturiko egunkarietan ere.

Epean barne Restauraciones Goiherri S.L. enpresak alegazioa aurkeztu zion aipatutako aldaketari.

Ikusirik alegazioaren edukia.

Ikusirik Udaleko abokatuaren txostena.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Restauraciones Goiherri S.L. enpresaren alegazioa onartzea.

2) Leoncio Oscoz Echeverria jaunak aurkeztutako eskaera ez onartzea eta bertan behera uztea.

3) Akordio hau Leoncio Oscoz Echeverria jaunari eta Restauraciones Goiherri S.L. enpresari jakinaraztea.

## **3.-ARANTZAKO ARAU SUBSIDIARIOEN ALDAKETA EGITURATZAILEA: HASIERAKO ONESPENA.**

Ikusirik Arantzako Arau Subsidiarioen AR-2 lur zoru urbanizagarri ez sektorizatuaren edukia eta egoera.

Ikusirik Udaleko Arkitektoen aldeko txostena,

Kontuan hartuz egiturazko aldaketa dela proposatutakoa.

Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko 35/2002 Foru Legearen 80., 79.2, 70. eta 71. artikuluetan ezarritakoari jarraituz,

Aho batez, eta legeak eskatzen duen gehiengoa izanik, ERABAKI DUTE:

1) Arantzako Udalak sustatutako egiturazko aldaketa hasiera batez onartzea.

2) Aipatutako espedientea jendaurrean jartzea hilabeteko epean, iragarki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta Nafarroako egunkarietan argitaratuta, bizilagunek eta interesdunek egokiak iruditzen zaizkien erreklamazioak, kexak eta oharrak aurkez ditzaten.

## **4.-NAFARROAKO GOBERNUKO HEZKUNTZA DEPARTAMENTUA: ESKOLAN OBRAK EGITEKO OBRA BAIMEN ESKAERA.**

Ikusirik Nafarroako Hezkuntza Departamentuak aurkeztutako eskaera eta proiektua (Xabier Lopez de Uralde arkitektoak eta Mikel Aleman Astiz arkitekto teknikoak egina eta 2016ko ekainaren 7an bisatua) Arantzako eskolan gela handitzeko eta portxe berria egiteko, eskolako beharrei irtenbide bat emateko.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuari eskolan gela handitzeko eta portxe berria egiteko obra baimena ematea, aurkeztutako eskaera eta Arantzako Arau Subsidiarioen arabera.

2) Obraren ezaugarri, pertsonen segurtasun eta garbiketari dagokionez Arantzako Arau Subsidiarioek agintzen dutena bete beharko duela jakinaraztea.



## ARANTZAKO UDALA

IFZ: P 3102200 G

Herriko Plaza, 7  
31790 ARANTZA (Nafarroa)  
☎ 948 634 005  
☎ 948 928 919  
arantza.udala@arantza.eus  
www.arantza.eus

3) Eskatzaileari jakinaraztea segurtasun eta osasun gaian bete beharraren obligazioa obraren sustatzailearena dela eta edozein erantzukizuna bere gain izanen dela.

4) Eskatzaileari jakinaraztea obran sortutako hondakinak 23/2011 Foru Dekretuaren arabera kudeatu beharko duela.

5) Eskatzaileari jakinaraztea baimen hau hirugarren baten baimenak baldintzatzen ahal duela.

6) Eskatzaileari jakinaraztea baimen honen iraupena dela: urte bat lanak hasteko eta hiru urte bukatzeko.

7) Ebazpen hau eskatzaileari jakinaraztea.

### 5.- 2016KO EKAINAREN 26KO HAUTESKUNDEETARAKO MAHAIKIDEEN HAUTAKETA.

2016ko ekainaren 26an izanen diren Gorte Nagusietako Hauteskundeak direla eta, mahaikideak hautatu ziren maiatzeko 30ean egindako bileran.

Hautatuak egindako alegazioak onartuak izan dira eta zozketa berria egitea beharrezkoa ikusi da.

Indarrean dagoen Hauteskunde Erregimen Orokorri buruzko Lege Organikoaren 26. artikuluan ezarritakoaren arabera, ondoren adierazten diren hautesleak izan dira izendatuak zehazten diren karguetarako:

-ORDEZKOAK:

-1. Mahaikidearen 2. ordezkoa: Amaia Apaolaza Goena andrea.

-2. Mahaikidearen 1. ordezkoa: Teodoro Picabea Zubieta jauna.

-2. Mahaikidearen 2. ordezkoa: M. Nieves Gamio Salaberria andrea.

### 6.-ALKATEAREN EBAZPENAK.

Alkateak azken bileratik emandako ebazpenen berri eman du 2016ko 80 ebazpenetik 87. ebazpena arte.

### 7.- ESKAERAK ETA GALDERAK.

Ez dira egin.

Bertzerik gabe, gaueko 22:00ak izanik, bilera amaitutzat jo dugu eta eztabaidatu eta erabakitakoa jasota geratzeko, agiri hau egin dut neronek, idazkariak, egiaztatuta.

O.E. ALKATEAK,  
Juan Miguel Almandoz Mitxelena jn.



